

7

Revista
de Estudios
Marítimos
del País Vasco

ITSAS
m e m o r i a

IRIXOA CORTÉS, Iago: "Donostia eta Pasai San Pedroren arteko harremanak Erdi Aro amaieran", *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 7, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2012, pp. 145-156.



Donostia eta Pasai San Pedroren arteko harremanak Erdi Aro amaieran*

Iago Irixoa Cortés

Ereiten K. Z.

Recep.: 21.09.12

BIBLID [1136-4963 (2012), 7; 145-156]

Acep.: 06.11.12

Resumen

En el marco de las relaciones y conflictos suscitados en torno a la bahía de Pasaia, siempre se han mencionado las disputas mantenidas por San Sebastián contra Errenteria, Hondarribia, Pasai Donibane o Lezo. Son pocas las investigaciones que han incidido en la comunidad pasaitarra de San Pedro a fines de la Edad Media. Sin embargo, ella protagonizó un importante pleito contra San Sebastián a fines del siglo XV, originado por las duras condiciones que la villa impuso a esa comunidad, impidiendo su desarrollo y limitando sus actividades. A través de los párrafos siguientes, intentaremos trazar las principales líneas.

Palabras clave: San Sebastián, Pasai San Pedro, Baja Edad Media, aprovechamiento portuario, conflicto.

Laburpena

Pasaiaiko badiaren inguruan sortutako harreman eta liskarrak hainbatetan izan dira hizpide. Gehienetan Donostiak Errenteria, Hondarribia, Pasai Donibane edo Lezoren aurka izan zituen auziak aipatu dira. Gutxitan aztertu izan da Pasai San Pedrok Erdi Aro amaieran izan zuen papera. Alabaina, XV. mendearen amaieran, Pasai San Pedrok eta Donostiak auzi gogor bat izan zuten hiribilduak populazio horri ezarri zizkion baldintza gogorak zirela eta, San Pedroren garapena eta ohiko jarduera galarazi eta mugatu egiten baitzuten. Ondorengo paragrafoetan gai hau izango dugu hizpide.

Gako-hitzak: Donostia, Pasai San Pedro, Behe Erdi Aroa, portu aprobetxamendua, gatazka.

Abstract

As part of the relations and conflicts that arose around the Bay of Pasaia, mention has always been made of the disputes between San Sebastián and Errenteria, Hondarribia, Pasai Donibane and Lezo. Until now, there has been little research work on the Pasaia community of San Pedro at the end of the Middle Ages. However, it took part in an important lawsuit against San Sebastián at the end of the 15th century due to the harsh conditions the town imposed on the community, preventing its development and limiting its activities. In the following paragraphs, we attempt to outline events.

Key words: San Sebastián, Pasai San Pedro, Late Middle Ages, port use, conflict.

* Ohartu nahi dugu ondorengo lerroek beste artikulu baten laburpena osatzen dutela. Bertsio luzeago hau Untzi Museoko webgunean [www.untzimuseoa.net] eskuragarri dagoenez, hainbat hausnarketa, datu eta dokumentuei buruzko datu gehiago jakin nahiez gero, hara jotzea gomendatzen dugu.

SARRERA

Pasaiaiko portuaren inguruko hamaika tirabiren inguruan egin diren ikerkuntzek, arazoak goiz hasi zirela adierazi dute. Hala, Donostiak mantendu zuen jarreraren aurrean Errenteria, Oiartzun, Pasai Donibane edo Hondarribia haren aurka agertu ziren. Azken hauek Urumeako hiribilduaren eskumen edo jurisdikzioetik kanpo zeuden komunitateak ziren, eta ezaugarri honek arazoaren zergatia azaltzen du, Donostiaren lehiakide zuzenak baitziren. Baina horiez gain, badiako ertzetan beste gune bat garatu zen, oraingoan Donostiako jurisdikziopean: gerora Pasai San Pedro izango zena, alegia. Hiribilduak berarekin izan zituen liskarrak, ez ziren nolanhikoak izan. Are gehiago, XV. mende amaieran tentsio larriak sortu ziren eta 1497-1503 artean eman zen auzi batek argi islatzen du hiribilduak sanpedrotarrei ezarri zizkien hainbat neurrik komunitate txiki horren garapena baldintzatzen zutela. Hala, mende batean Donostiak hasi zuen bideak jarrera ezberdinak bultzatu zituen: inguruetan bizitzeko lekua doan ematek, ekintza eta baldintza gogorak jartzera arte.

Ondorengo lerroen helburua, beraz, Donostia eta San Pedroren arteko harremana ikertzea izango da, XIV. mende amaieratik XVI. mende hasiera arte. Batetik, gutxi ikertutako esparrua delako¹. Bestetik, hiribilduek beraien lurraldeetan zituzten komunitate zein lur edo portuekin zuten harremana ikertu nahi dugulako. Izan ere, San Pedroren kasuak oso joera adierazgarria aurkezten du: bertan ekoizten ziren produktuen eta burutzen ziren jardueren kontrol zorrotza, hain zuzen ere.

Halako egoera aztertzeko, beharrezkoa zaigu badiaren inguruan ditugun lehen berrietara jotzea. Izan ere, San Pedroko populatzea prozesu luzeago baten baitan kokatu behar da, XIII. mende amaieratik dokumentazioak agerian uzten duena. Garai honetan badia burdin esportazio gune garrantzitsua zen eta jarduera honek zonaldearen garapena bultzatuko du, ondorengo hamarkadetakotako datuek ongi azaltzen duten bezala. 1318an ainguraleku bat jartzeko asmoa ageri da "cod de mastel" izeneko lekuan, gaur egungo Ondartxon; gune hori Hondarribia-Getaria arteko merkatal bidean beharrezko zen geraleku bihurtuko zen. Errenteria hiribilduaren sorrerak, 1320 urtean, badiari berebiziko garrantzia emango dio; 1328an, berriz, Irungo eta Oiartzungo olagizonei Burdinolen Forua emango zaie, jarduera horri bultzada emanez.

Ondorioz, ulergarria da badiaren garrantziaren areagotzeak liskarrak ekartzea. Hasiera batean, arazoek hiru partaide nagusi dituzte: Errenteria, Oiartzun eta Donostia. Baina XIV. mende amaieran beste bat batuko zaie: Hondarribia. Bidasoako hiribilduaren agerpena berantiarra bazen ere, argi islatzen du San Pedro pareko lurretan mugimenduak areagotzen ari zirela. Jakina denez, XIII. mende hasierarako Lezon hainbat biztanle kokatuak zeuden. Hamarkadek aurrera egin ahala, bertaiko jendeak badiaranzko joera erakutsiko du. Biztanleak Donibanen finkatuko dira eta, agidanez, 1366rako Bonantzan eliza xume bat eraiki zuten. Kokapen hau oso esanguratsua zen, Donostiaren jurisdikzioaren mugan edo, larriagoa zena, bere jurisdikzioan zeuden lurretan baitzegoen.

Pasaiaiko portuaren inguruan ematen ari ziren eraldaketak medio, Donostia bere egoera indartzen saiatuko da Errenteria eta Donibaneren aurrean. Horretarako, ordura arteko baliabide judizialak erabiltzeaz gain, gerora San Pedro izango zenaren inguruetan jendea finkatzeko bideari ekin zion.

1. KOMUNITATE BAT FINKATU ZENEKOA: LURREN DOHAINTZATIK ELIZAREN ERAIKUNTZARA (1397-1456)

XIV. mende amaieran abiatutako ekimenak gune horretan eman zen lehenengo eraldaketa sakona ekarri zuen. Izan ere, Donostiak bultzatutako plana dugu, gune hori propio populatzeko asmoz; ez zuen, beraz, aurreko hamarkadetan pixkanaka kokatu ziren gaskoi kutsuko familiekin lotura zuzenik². Finkapen hau bultzatzeko, 1397-1400 urte inguruan Urumeako hiribilduak badiako zonalde horretan ezarri nahi zen edonorri etxea eraikitzeke orubea eta baratzerako lursail zati bat doan ematen zizkion, inolako errentarik ordaindu gabe. Badian XIV. mendearen azken laurdenean eman ziren auziek Donostia halako jarrera izatera behartu zuten.

1. Ald. TENA GARCÍA, María Soledad: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Dr. Camino, Donostia, 1997; eta IRIXOA CORTÉS, Iago: *Pasaia: hastapenak (XIV-XVI. mendeak)*, Pasaiaiko Udala, Pasaia, 2009.

2. Honetarako, ikus gure «Atzerritarrek Erdi Aro amaieran: Pasaiaiko badiako populazioen adibidea (XIV. mende amaiera-XVI. mende hasiera)», *BEHSS*, 45. zk., 2012, 36-44 orr. (15-125).

San Pedron sortutako guneak ezaugarri propioak zituen, Altzan bizitako prozesuarekin parekotasuna aurkezten dutenak³. Batetik, hiribildua fundatu ondoren sortutako edo garatutako guneak dira. Biak, gainera, Donostiak bere lurraldeen gaineko kontrola areagotzeko ekimenaren ondorio zuzena dira. Orio edo Usurbil hiribildu bezala fundatu ondoren, Donostiak lurralde-galtze nabarmena pairatu zuen eta, halaber, badia borroka gogorak ezagutzen ari den zonalde bat zen. Altza eta San Pedro, beraz, gune gatazkatsu baten lurralde-mugaketa bideratzeko pausoa islatuko dute. Horretarako, ez zegoen bertan populazioa finkatzea baino bide hoberik.

Horrez gain, bi guneak XIV. mendeko krisialdiak ekarri zuen hornidura eskasiari aurre egiteko erabili zitzakeen. Altzan abeltzaintzan zein nekazaritzan oinarritutako jarduerak bultzatuko dira. San Pedron, aldiz, arrantza edo itsasoarekin zerikusia dutenak. Ondorioz, biak hiribildua zuzkitzeko berebiziko garrantzia izango dute.

Altzan gertatu bezala, deialdi honek ez zituen inguruko biztanleak bakarrik erakarri, aitzitik, urrutiago zeuden zonaldeetakoek pisu nabarmena izan zuten. San Pedron, kantauriar kostaldea izan zen biztanle aldetik ekarpen nabarmena egin zuena. Gure ustetan, aurreko mendeetan garatutako loturak eta harremanek berebiziko eragina izan zutelaren adibide argia dira⁴.

Baina Altzarekin alderatuta, San Pedroko zonalde horrek ezberdintasun bat zuen. Sastrakaz, otadiz eta sasitzaz beteriko lursailak ziren, etekin gutxikoak. Donostiak eskualde horretan populatze edo lurraldetasunean oinarritutako kontrol zehatzago bat ezarri nahi bazuen, nolabaiteko abantailak eman beharrean zegoen. Horregatik, lurrak doan eman zituen. San Pedro inguruetan etxeak zein baratzeak egin nahi zituztenei Donostiako udalbatzak ez zien ezer kobratzen. Biztanle horiek, bi betebeharrak zituzten, besterik ez. Batetik, zein lur izango zen adierazten zuten udal-ofizialei jaten ematea. Bestetik, eskribauari ekintza idatziz jartzeagatik kobratzen zituen eskubideak ordaintzea. Garai hartan eman zen prozesuaren bi adibide ditugu: 1429 eta 1442ko bi dohaintza gutun, hain zuzen ere⁵. Lehenengoan, aurreko hamarkadetan ezarri zen biztanle baten ondorengoari egiten zitzaion dohaintza, Pedro Cotilloskoaren izen bereko semeari, alegia. Bigarrenean, Juan de la Canal eta Elbira Barrenetxeakoa senar-emazteei.

Bietan dohaintza zein baldintzatan egiten zen ageri da. Lurra jasotzen zutenek hiribilduarekiko zituzten betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen zuten. Horien artean honakoak aipa daitezke: udalbatzaren baimenik gabe lursaila ez saltzea eta ezta besterentzea ere; udalbatzaren mandatuak eta aginduak betetzea; eta honek ezarriko zituen petxu edo dirubanaketetan parte hartzea. Halaber, etxearen eraikuntzari eta lurraren gozamenari lotutako neurriak azaltzen dira. Batetik, lurra dohaintzan emango zen denbora mugagabea zen. Biztanle berriek udalbatzak kontrakoa erabaki arteko gozamina izango zuten; hala, kontratuan ezarritako baldintzak ez betetzekotan, lursaila beste pertsona baten eskuetara pasa zitekeen⁶. Suteak edo beste eragileren batek etxea suntsitu edo eraitsiz gero, udalbatzak lursail edo orubearen jabetza berreskuratuko zuen. 1442an, gainera, baste baldintza berri bat ageri da: dohaintza eman eta urtebete eta egun bateko epean etxerik eraikitzen ez bazen, lursaila beste batzuentzat izango zen.

Bi idatzietan kaiei egiten zaien aipamena ere azpimarratzekoa da. Orubea eta lursailarekin batera, ondoan, urarekin muga egiten zuten lurrak kai moduan erabiltzea ohikoa zen. Azpiegitura sendo bat baino, itsas-beheran agerian geratzen zen harriz, lohiz edo areaz estalitako eremuetan pentsatu behar dugu, bertan txalupak lehorreratzuz; edo bestela, lur edo arean sartutako zutoinak, ontziak horietan lotzeko⁷. Kaiei buruzko aipamenak, gainera, biztanle horiek itsasoarekin harreman estua zutela adieraziko luke.

Hamarkadak aurrera egin ahala, San Pedroko komunitatea finkatuz joan zen. 1450ean hiribilduak eta Altzak sinatutako sagardoaren hornidurari buruzko hitzarmenak agerian uzten du Pasaia

3. Hau guztirako, ZAPIRAIN KARRIKA, David; eta MORA AFÁN, Juan Carlos: «Altza: de los cubilares al concejo. Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra», *BEHSS*, 32. zk., 1998, 535-577 orr.

4. IRIXOIA CORTÉS, I.: «Atzeritarrak...», aip. lan.

5. Ikus IRIXOIA CORTÉS, Iago: *Pasaia...*, aip. lan., 95 orr. eta ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, 609 au.- at. folk.

6. Halakorik 1520ean gertatu omen zen. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 255 au.-at. folk.

7. 1442ko eskrituran, adibidez, hau aipatzen zen: "E más que entre la dicha vuestra tierra plaça e la dicha casa del dicho Martycot de Noguier ayades bos e el dicho Martycot para puerto común de los dos e de las dos casas (...) *segund otras casas semejantes*". ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, 609 au.- at. folk. Azpiegitura hauetarako, ikus GOIENETXE PATRÓN, Ramón: *Pasaia atlantikoa* (prentsan); IRIXOIA CORTÉS, Iago: *Pasaia...*, aip. lan., 75-77 orr. eta TENA GARCÍA, María Soledad, aip. lan., 536-541. orr.

hainbat lekutako pertsonen ainguraleku zela⁸. Zazpi urte beranduago, 1457-1458 artean, sanpedrotarrek eliza propioa eraikitzeke asmoa agertu zuten, beraien behar erlijiosoei erantzun egokia emateko. Ordura arte inguruko beste elizetara joaten ziren horiek jasotzera, baina populatzea hasi eta hamarkada gutxiren buruan, hori egitea txiki geratu zitzaien⁹. Modu honetan, sanpedrotarrek beraien burua antolatzeke premia sumatu zuten: bizi ziren lekuan beraientzako azpiegitura izateke irtenbide azkarra emango zien eta gainera, ez ziren beste batzuen menpe egongo¹⁰. Ekintza honek argi adierazten du komunitate horren finkapena, Donostiarekin burututako hitzarmenak hiribilduarekiko menpekotasun nabaria islatzen bazuen ere.

Eraldaketa, baina, badian zehar ematen ari zen. Hor ditugu, adibidez, Donostiako erakunde zein familia garrantzitsuek egindako inbertsioak¹¹. Donibanen ere, gauzak aldatzen hasiak ziren. Martin Gartzia Likonakoak Donostia eta Hondarribiaren arteko liskarren inguruan 1455ean epaia eman zueanean, bokalearen bestaldean finkatutako populazioaren arrakasta agerikoa zela islatzen da, 1399tik ordura arte etxeak handitu eta zabaldu zirela aipatzen baitu. Baina ez da Donibaneko biztanleriaren antolaketa garatzen ari zelaren zantzu bakarra: hori dugu, besteak beste, 1450-1460 artean Txurru-tailako erroten eraikuntza. Halaber, 1455ko dokumentuak Hondarribiaren aldeko hainbat neurri ematen zituen. Aipagarriena, zalantzarik gabe, Mororen epaitik ordura arte Donostiaren jurisdikzioaren erakitutako etxeak, Bidasoako hiribildura pasatzea¹².

2. LURRAK ERRENTAN? LEHENENGO ALDAKETAK (1473-1484)

Eliza eraiki eta urte gutxiren buruan, baina, aldaketa nabari bat eman zen sanpedrotarren egoeran, Donostiako udalbatza lurrengatik, urtean 5-10 marai bitarteko errenta edo zentsoa kobratzen hasi baitzen. Dokumentazioak ez du jarrera honen zergatia aditzera ematen, baina ditugun datuak lotuz, hainbat ondorio atera ditzakegu.

Batetik, San Pedroko komunitateak bizi zuen garapena. Itsasoarekin lotutako jarduerak zuten geroz eta garrantzia handiagoarekin batera, inguruko lurrek ustiapen sakonagoa ezagutu zuten. Biztanleek behar gehiago zituzten eta oinarrizko elikagaiak erein edo landatzeari ekin zioten, lursail horiek nahiko pobreak baziren ere. Hasiera batean, bertatik lortzen ziren fruituak Donostiako elizei hamarrenak eta hasikinak emateko balioko zuten, baina hazkunde demografikoarekin, inguruko lurren gaineko presioa areagotu zen, bertako lurretatik lehen baino mozkin handiagoa lortuz. Bertan landatutako aranondo, gereziendo, muxikondo, udareondo edo sagarrondoak bezalako fruta-arbolak eta baratzeak horren adibide dira. Hau ikusirik, ez litzateke harrizkeoa lurren aprobetxamendu horren ildotik hiribilduak nolabaiteko etekinak lortzeko aukera ikustea:

«que después que se fisieron las dichas huertas en el dicho suelo se aprouechan d'ellas asy los vezinos e moradores de la dicha villa de Sant Sebastián, espeçialmente los que andan e siguen en el dicho lugar, allende de los dineros que lleuaron por ello, como por los veçinos e moradores del dicho lugar, que se han proueydo e proueen de la hortalisa que han menester para sus casas de las dichas huertas»¹³.

Mendi malkartsu eta sastrakaz betetako horietan gertatu zen eraldaketari arrantzarekin lotutako jarduerak gehitzen badizkiogu, agerikoa da Donostiak irabazi ekonomiko gehiago lortzeko aukera ikusi zuela. Batetik, hiribilduko elizei hasikin gehiago biltzeko abagunea eskaini zien. Bestetik, ekoiztutako produktuak donostiar merkatura bideratzeko aukera zegoen.

Etekin gehiago ateratzearekin batera, errentaren ezarpenak hiribilduaren testuinguru ekonomikoarekin zerikusia izan zezakeen. Hau da, Donostiaren gastuek gora egitea eta diru gehiago behar iza-

8. BANÚS Y AGUIRRE, José Luis: *El Archivo Quemado. Inventarios antiguos del acervo documental de la M. N. y M. L. Ciudad de San Sebastián antes de la destrucción de 1813*, Dr. Camino, Donostia, 1986, 110 orr. Geroago, 1492, 1493 eta 1509an berritu egin zen. Ald. ZAPIRAIN KARRIKA, David; eta MORA AFÁN, Juan Carlos, aip. lan., 564-566 orr.

9. GOÑI GAZTAMBIDE, José: «Fundación de la iglesia de San Pedro de Pasajes (1457-1458)», *BEHSS*, 2. zk., 1968, 7-19 orr.

10. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XCV au.-at. folk.

11. LANDA IURKO, Iñigo: «Engomezarren jabetzak La Herreran (1467-1574)», *Altza, hautsa kenduz*, V. zk., 1999, 41-76 orr.

12. Pasaiaiko Udal Artxiboa, 1665-1, 8 at. fol. edota ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, DXIV au. eta hh., bereziki DXXV at.-DXXVI au. folioak. Soledad Tenak aldiz, Likonak etxe horiek Donostiako jurisdikziopean geratu zirela zioen. Ald. TENA GARCÍA, María Soledad, aip. lan., 559-560.

13. ARChV. Pleitos Civiles, Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 97 at.-98 au. folk.

tea. Azken hipotesi honen ildotik, 1497an lekukorik zaharrenek esaten zituztenak kontutan hartu behar ditugu. Izan ere, errenta 1473-1477 inguruan ezarri zela adierazten dute:

«e que las dichas huertas que de antes estauan fechas e plantadas, que las tenían gran tiempo libres e hesentas, aprobechándose delas [sic] como de suyas, *fasta que puede aver beynte anos poco más o menos tienpo qu'el dicho conçejo* (...) *de la dicha villa les echó de çenso a cada vna d'ellas e a algunas d'ellas a çinco maravedis, a otras a dies*»¹⁴.

Data hauek ez dira zorizkoak. Are gehiago, aldaketa garai batean txertatzen dira, 1473tik Errenteria eta Donostiaren arteko liskar odoltsuak gertatuko baitira. Honen baitan, 1475ean badiaren jurisdikzioari buruzko epai berri bat eman zen. Donostiak zituen eskumenak berrestez gain, neurri berriak eman ziren. Izan ere, orduz geroztik portuzainak izendatzeko eskumena Donostiak bakarrik izango zuen. Ofizial hauek portu eta urari zegozkien zergak eta eskubideak jasotzeaz gain, Errenteria eta Oiartzungo itsasontziek zeramaten karga ikuskatzen zuten; merkatal trafikoa zaintzen zuten eragileak ziren, beraz. Ondorioz, epai berriaren bidez, Donostiak badiako portu-mugimenduaren kontrol zorrotza ezartzeko aukera bikaina izan zuen¹⁵.

Bestalde, 1478ko irailean Donostiak eta Oiartzunek elkarren arteko bake hitzarmena sinatu zuten, Pasaiaiko portuaren inguruan izandako liskarrak zirela eta. Hartutako erabakien artean lonja baten eraikuntza adosten zen, Donostiaren jurisdikzioan. Eraikin horretan atzerritarrek Oiartzunera zeramatzaten aleen erdia deskargatuko zuten eta bailaratik zetorren burdina ere, bertan ikuskatuko zen¹⁶.

Momentu hartan Donostia merkatal garraioari buruzko abantailak lortzen ari zen. 1477an Errege Katolikoek gune harresituaren ondoko eremuan lonja bat eraikitzeke baimena eman zioten, eta hiribilduak eraikitzeke erabakia hartu zuen urte hartako martxoan¹⁷. Eraikin honen bidez, hiribildura iristen ziren merkatalgaien ikuskatze zorrotzagoa egiten zen, han bertan deskargatzen baitziren, eta horrez gain, produktuak saldu aurretik aplikatzen zitzaizkien zergak biltzeko lekua zen. Hitzarmenaren bidez, beraz, Urumeako hiribilduak badiaren lonja bat eraikitzeke abagunea zuen, bertara iristen ziren produktuak ikuskatzeko aukera ezin hobea eskainiz.

Aurreko akordioa bete ez bazen ere, Donostiak bere eragina eta kontrola areagotzeko plana burutu zuen. Lonja bat eraiki ordez, beste eraikin esanguratsu bat egin zuen, ziurrenik 1476 frantses inbasioa gertatu ondoren. San Pedroko dorreaz ari gara. Defentsa tresna izateaz gain, eraikina portuzainen egon-leku ere bihurtu zen, bertatik ateratzen eta bertara sartzen ziren merkatalgaiak kontrolatzeko azpiegitura, beraz.

Izan ziren istiluek eta dorrearen eraikuntzak gastuen igoera ekarriko zutela uste dugu. Donostiak diru gehiago beharko zuen hauei aurre egiteko eta hala, zentsoa kobratzeko erabakia hartuko zuen. Hiribilduak hizkuntza apropos bat erabiliko zuen horretarako: ordainketak sanpedrotarren babes eta defentsa gastuei aurre egiteko zirela argudiatuz, adibidez. Egia da dokumentazioak ez zuela hipotesi honen inguruan datu askorik azaltzen, baina badakigu sanpedrotarrek zentsoaren ordainketa arazo handirik gabe onartu zutela; batetik, nolabaiteko presio edo beldurra zutelako, baina bestetik, ordaindu beharrekoa kopuru txikia zela iruditu zitzaielako¹⁸.

Zentsoaz gain, baina, Donostiak beste erabaki batzuk hartu zituelakoan gaude; 1489ko ordenantzetan jaso ziren baldintza gogorak, hain zuzen ere. Donostiaren ustetan, biztanle horiek zeuden geografia esparruak ez zuen merkataritzaren hedapenari erantzuteko azpiegitura garrantzitsurik egiteko aukera ematen. Itsasoko jarduerekin zerikusia zuten eraikin garrantzitsuenak hiribilduan egongo ziren, San Pedro atsedean leku edo denbora jakin baterako ainguraleku bihurtuko zelarik. Horregatik, bertan burutzen ziren hainbat lan hiribilduan zentralizatzeko erabakia hartu zuen: arrainaren ontze eta lehorteza, badiara iristen ziren produktuen lurreratzea edota sanpedrotarrek zituzten hornidura beharrak hiribilduaren interesen menpe jartzea.

14. Juangi Isastikoaren lekukotza. *Ibidem*, 121 at. fol.

15. IRIXOIA CORTÉS, Iago: *Pasaia...*, aip. lan., 97-100 orr. Epaierako, CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; eta GÓMEZ LAGO, José Manuel: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo II (1470-1500)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997, 66. dok.

16. CRESPO RICO, Miguel Ángel; CRUZ MUNDET, José Ramón; eta GÓMEZ LAGO, José Manuel, aip. lan., 70 dok.

17. *Ibidem*, 65. dok.

18. «a este testigo le han hecho pagar çierto çenso de vna verta que tenía (...) qu'el dicho çenso no se puso de su consentymiento, saluo que como eran superiores, por fuerça e contra su voluntad obedesçíanlo lo que les mandavan. Fue preguntado que pues en la tyerra ayva justicia de Sus Altezas al tienpo que les pusieron la dicha ynposyçión que por qué no reclamaron e se quexaron. Dixo que porque era poca cosa e por no se poner con ellos en plito e diferencia». ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, LXXXIV at. fol.

Hasiera batean neurriak eramangarriak izango ziren, baina hamarkadak aurrera egin ahala San Pedroko populazioa handitzen zihoan eta badiak geroz eta behar gehiago zituen. XV. mendearen bigarren erdialdetik badiak loraldi garaia hasi zuen eta sanpedrotarrei ere eragin zien¹⁹. Horregatik, zentsoak eta baldintza gogorrek, hiribilduarekiko zuten harremanaren inguruan hausnarketak egitera eramango lituzke San Pedroko biztanleak. Zer esanik ez, Donostiaren jurisdikziotik at zeuden badiako lurraldeetan garapena argia zenean. Zentsoaren eta beraien jardueren gaineko kontrolaren ondorioz, sanpedrotarrentzat garai gogorak etor zitezkeen, baina gertakariak aukera bat eman zieten denbora gutxira, 1484an hain zuzen ere.

3. SAN PEDROKO AURRERA PAUSOA, ARAZOEN AITZINDARI: UDAL-LURREN SALMENTA (1484)

Urtean hartan Donostiako hiribilduak pairatutako izurriteak ondorio latzak izan zituen. Jende askok hiribildutik ihes egin zuen, tartean udalbatza osatzen zuten hainbat ofizialek. Egoeraren larritasuna ikusita, eta honi aurre egiteko asmoz, hiribildu barruan geratu zirenek udalbatzara ospatu eta ahalordea eman zuten urte hartako alkateen eta Migel Otsoa Olazabalgoa hamabi nagusiaren alde. Helburua hainbat hiri-lur saltzea zen, kalteei aurre egiteko eta San Sebastian elizatik gertu zeuden erroten eraikuntza amaitzeko beharrezkoa zen dirua lortzeko asmoz. Saldu ziren lurren artean, Usurbilerako bidean eta San Pedron zeuden batzuk zeuden²⁰.

Momentu horretan halako ekintzak egitea arazoak ekar zitzakeen. Hiribildutik alde egitearen ondorioz udalbatzarretan parte hartzen zuten auzotar gehienak falta zirenez, juridikoki gehiengorik gabe hartutako erabakiak ziren; etorkizunean, gauzak beraien onera itzultzerakoan, erabaki horiek zalantzan jarri zitezkeen. Eta hori izan zen San Pedroko lurren salmentarekin gertatu zena. 1497an arazo hau agerian geratuko da, baina ika-mikak 1484an bertan hasi ziren, urte horretako udalbatza osatzen zuten hainbat auzotarrek salmenta zalantzan jarri baitzuten. Batetik, erregeen baimenik gabe (alegia, legearen aurka) egin zelako; bestetik, halako erabakiak hartzeko beharrezkoa zena baino jende gutxiago elkartu zelako eta azkenik, urte hartan San Pedro kofradiako maioral zen Juan Bono Errialdekoak salmenta errefusatu zuelako²¹. Edonola ere, udalbatzak lur horiek enkantean ateratzeko erabakia hartu zuen. Juan Santanderkoa izan zen posturagilerik altuena, baina ez zen bere kabuz ari; aitzitik, sanpedrotarren izenean ziharduen. Ondorioz, bertako lurak eskuratu zituztenak sanpedrotarrak ziren; aurretik ustiatu zituztenak, alegia²².

Udalbatzak lursail horiek saltzeko hartu zuen erabakiak hiribilduan batzartutakoen artean hainbat eztabaida sortu bazituen, San Pedron burututako salmenta prozesua ere ez zen guztiz lasaia izan. Lurak jabetzan eskuratzeko aukeraren aurrean sanpedrotarrak ez ziren oso gogotsu agertu. Are gehiago, 1497ko auziko hainbat lekukotzek behin baino gehiagotan diote donostiarrek lur horiek erostera behartu egin zituztela, mehatxu artean²³.

Mehatxu horiek Donostiako udalbatzak diru-sarrerak lehen bait lehen lortzeko zuen presa islatzen dute. XV. mende amaierako auzian, behin baino gehiagotan aipatzen da lurak halamoduz saldu zirela, balio zutena baino diru-kopuru txikiagoan. Hiribildua, gainera, jakitun zen Pasaiaiko lur horien pobretasunaz eta sanpedrotar ez zirenentzat zuten erakargarritasun ezaz. Ordurako, lur onenak, emankorrenak edo nekazal zein abeltzaintzarako onenak zirenak pertsona edo familia batzuen esku zeuden, besteak beste, San Matet, Trintxer eta Donostiako oligarkiaren kide batzuen esku (Engomeztarrak, Okendotarrak edo Durangotarrak, kasu). Baina bertako biztanle gehienak itsasoa

19. Besteak beste, Ingalaterrarekin loturak areagotu ziren. Ikus IRIJOA CORTÉS, Iago; eta MARTÍN SÁNCHEZ, David: *Errenteria a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)* (www.errenteria.net/ue/html/41/3863.shtml), eta IDEM: «Errenteria XVI. mende hasieran: merkataritza eta gizarte», *Bilduma*, 24. zk., 2012 (ale monografikoa).

20. LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel; eta LEMA PUEYO, José Ángel: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (1250-1515)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995, 62. dok. Ald. IRIJOA CORTÉS, Iago: «Finanzas concejiles e irregularidades en San Sebastián a fines de la Edad Media (1489-1517)», *BEHSS*, 42. zk., 2008-2009, 27-28 orr (9-54). Salmenta hauen inguruan, LANDA IJURKO, Iñigo, aip. lan. eta IRIJOA CORTÉS, Iago: «Botere guneak Erdi Aroko Donostian: San Bartolome komentua (XIII. mendetik XVI. mende hasiera arte)», *BRSBAP*, LXV. zk., 2009, 21-22 orr. (5-56).

21. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, CCCCLX au. fol. Halaber, badakigu 1486an hainbat ika-mika izan zirela 1484an Migel Otsoa Olazabalgoak hamabi nagusi bezala izan zuen jarduna zela eta. IRIJOA CORTÉS, Iago: «Finanzas concejiles...», aip. lan., 45. orr eta 115. oharra.

22. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, LXVII at.-LXVIII au. folk.; ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 90 at.-91 at., 113 at.-115 au. folk.

23. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 180 at.-181 at.

lan leku bazuten ere, ordura arte ustiatu zituzten lur horiek galtzeak beraientzat larria izango litzateke, oinarrizko elikagai eta produktuak lortzeko funtsezkoak zirelako. Sanpedrotarrek, beraz, lursail horiek erosi zituzten.

Ehun urte baino gutxiagoren buruan, Donostiaren ekimenak garrantzia ez ezik, arrakasta lortu zuen. Azken hamarkadetan baldintzak gogortu baziren ere, sanpedrotarrek beraien hainbat behar propio asetzeko ekimenak lortu zituzten. Elizaren eraikuntza izan zen horietako bat, baina garrantzitsua, ezbairik gabe, Donostiako udalbatzarenak ziren lurak jabetzan eskuratzea izan zen. Egoera berriak beraien garapena bermatzeko balio izan zezakeen, baina, zoritxarrez, ez zuen luzaroan iraun.

4. TENTSIOAK AREAGOTUZ (1487-1497)

1489rako Donostiak San Pedrokekiko jarrera guztiz aldatu zuela dirudi. XIV. mende amaieran zonalde horren populatzea bultzatzeko, erraztasunak eta laguntza eman zituen. Urte hartako ordenantzatan ikusten ditugun neurriak, aldiz, guztiz bestelakoak dira: badiako gunen horren gaineko kontrol zorrotzaren adierazle dira.

1489 urte garrantzitsua izan zen Donostiako historian. Orduan gertatutako suteak hiribildua guztiz suntsitu zuen, eta, sinbolikoki, Erdi Aroari amaiera eman zion. Testuingurua ez zen batere lasaia. 1480-1521 artean Donostiako bizitzak hamaika tirabira ezagutu zituen eta tentsioz beteriko garaia izan zen, barealdiak barealdi²⁴. Donostiak araudi berri bat egin zuen 1489an bertan. Suaren ildotik, eta hiribilduaren suntsipena aitzakiatzat hartuta, udalbatzak ez zuen aukera galdu udal zein ohiko bizitzako hainbat arlo arautzeko, San Pedrori buruzkoak tartean.

Ordenantza hauek kontrol zorrotza ezartzen zieten komunitate horretako biztanleek bideratzen zituzten jardueri. Batetik, lurreratzen nahiz ontziratzen ziren produktuei buruzkoak aipa ditzakegu. San Pedron ezingo zen inolako karga eta deskargarik egin alkate eta errejidoreen baimenik gabe: ez gari, bihi, gatz, sardina, arrain fresko nahiz gatzatuarena eta ezta beste inolako merkatalgairerik ere. Halaber, sanpedrotarrek beraien bizilekura gari eta bihirik itsasoz eramatea debekatua zuten; halakorik egiteko alkate eta errejidoreen baimena behar zuten. Lurrez garraiatzekotan, ordea, ez zuten inolako eragozpenik. Bestalde, sanpedrotarren arrantza jarduerak eta honi lotutakoak mugatzen ziren: alkate eta errejidoreen baimenik gabe ezingo zen kongrio, katu-arrai, mielga edota beste arrain handi zein txikiren lehorte eta zatitzea San Pedron egin. Azkenik, sagardo ekoizpenari buruzko neurriak eman ziren. Besteak beste, sanpedrotarrei, ekoizten zuten sagardoaz beraien ontziak hornitzeko eskumena ematen zitzaie, betiere Donostiak Altzarekin zuen hitzarmena betetz²⁵.

Xedapen hauek San Pedroko ekonomia jarduerak gogor mugatzen zituzten, hiribilduaren eta gunen harresituan bizi ziren biztanleen mesedetan, garai hartan ohikoa zen bezala²⁶. Hiribildu ezberdinek oso barneratua zuten ideia zen hori. Donostiako kasuan Altzak sagardo eskaintzen zuen; Pasaia, aldiz, arraina.

Ohartu behar dugu neurri hauek ez zirela berriak; aitzitik, guztiak 1489 urtea baino lehenagotik indarrean zeuden. Zoritxarrez, ez dakigu noiz ezarri ziren, koaderno berriak ordura arte bezala mantendu zituen, edo hemen jasotzerakoan aldaketaren bat egin zitzaie ala ez²⁷. Beraien zorrotztasuna ikusita, sutearen ondorioz sanpedrotarrek hiribilduarekiko harremanetan aldaketa bat espero zutela pentsa dezakegu. Koaderno berriak, baina, argi utzi zuen hori ez zela emango. Gainera, 1488-1491 artean araudi horren onarpen prozesuak hainbat fase pasa zituen eta hasieran adostutako hainbat xedapen aldatu egin ziren²⁸. San Pedrokekiko harremana arautzen zuten puntuek baina, bere horre-

24. AZCONA, Tarsicio de: «El País Vasco durante la Guerra de las Comunidades. Aspectos referentes a la historia de Guipúzcoa», *Historia del Pueblo Vasco*, 2, Erein, Donostia, 1979, 59-110 orr.; GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto: «La Comunidad de San Sebastián a fines del siglo XV: un movimiento fiscalizador del poder concejil», *Espacio, Tiempo y Forma*, III, 6. zk., 1993, 545-572 orr.; GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto: *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y élites urbanas en el País Vasco*, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 2004, 240-246; IRIJOA CORTÉS, Iago: «Finanzas concejiles...», aip. lan.

25. AYERBE IRIBAR, María Rosa: «Ordenanzas municipales de San Sebastián de 1489. Edición crítica», *BEHSS*, 40. zk., 2006, 11-91 orr., 97, 103, 104, 105, 134, 143 eta 144 ordenantzak. 113. ordenantzak, berriz, Donibanetik eta beste hainbat lekutatik zetorren arrainaren salmenta arautzen zuen.

26. Ikus, besteak beste, GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto: *Gobernar la ciudad...*, aip., lan., 121-137 orr.; SORIA SESÉ, Lourdes: *Derecho municipal guipuzcoano (categorías normativas y comportamientos sociales)*, IVAP-HAEE, Oñati, 1992.

27. Geroagoko kexuak ikusita, gure ustetan ez zen inolako aldaketarik emango.

28. GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto: «La Comunidad...», aip. lan., 556 orr. eta 15 oharra eta BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, aip. lan., 115 orr.

tan iraun zuten. Ondorioz, hiribilduaren eta arrantzale eta marinelez osatutako komunitate txiki horren arteko tirabirak denbora gutxian agertuko zaizkigu. 1490eko abuztuaren 14an, jada, bi alde- en arteko tentsioak agerikoak dira²⁹.

Tirabiren lehenengo zantzuak, ordea, 1487an ditugu, baina udalbatzarekin izan ordez, Donostia-ko San Pedro arrantzaleen kofradiarekin izan ziren. Erakunde honek, Santa Katalinakoarekin batera, hamaika istilu eta tirabira protagonizatu zituen XV. mende amaieran, 1487an biak debekatu ziren arte³⁰. Udal ordenantzen gaureguneratzearekin batera, beste horrenbeste egin zen bi kofradia horien araudiekin. Honek guztiak San Pedron berebiziko eragina zuen, oso gutxitan aipatu bada ere, bertako biztanleak San Pedro arrantzale-kofradiako kide zirelako.

San Pedro kofradiako ordenantza berrietan (1489-1491), erakundeak jurisdikzioan zuen nolabait-eko eragina agerian uzten da. Bere maiordomoaren eskumenak arrantzaren inguruan hiribilduko eta *jurisdikzioko* maisu eta arrantzaleen artean sortutako liskarretara mugatu bazen ere, eremu harresitutik kanpokoen aipamenak oraindik sanpedrotar batzuen artean eragina izan zezakeela adierazten digu. Alabaina, karguen hauteskundeak *hiribilduko* maisu eta arrantzaleak biltzen zituen batzar nagusi batean ospatuko ziren; bileran, beraz, jurisdikzioko kofradeek ez zuten parte hartuko. Bestalde, oso esanguratsua da arrantzale-erakundearen araudi berriak sanpedrotarren inguruan neurri adierazgarririk ez jasotzea. Are gehiago, Pasaiari aipamena egiten dion bakarra esparru geografikoari buruz ari da, ez bertako komunitateari buruz³¹.

Azken honek, araudi berriak jurisdikzioko arrantzaleengan aurretik izan zezakeen eragina ahul- tzen zela islatzen du. Honek aldaketari bidea ireki zion eta 1497rako, sanpedrotar gehienek kofrade izateari utzi zioten, beste hainbatek oraindik erakundeko kide izaten jarraitzen bazuten ere³². Diru- dienez, kofradiaren eraldaketak sanpedrotarrek lehenagotik zituzten eskubideen galera ekarri zuten eta hala, erakunde horretan sartuta egoteak ez zuen abantaila askorik eskainiko³³. Oso esanguratsua da kofradia debekatu zen garaian, beraren eta sanpedrotarren arteko lehen tirabirak gertatzea. 1487ko abenduan, Errege Katolikoek Gipuzkoako korrejidoreari eta Donostiako zein Probintziako justiziei sanpedrotarrak babestea agintzen zieten, donostiarren asmoen aurrean³⁴.

Baina kofradiaren arteko arazoak goiztiarrak badira ere, XV. mendeko auzian ematen den ezta- baida nagusia lursailen jabetzarena da. 1489ko sutearen testuingurua ikusita, ez litzateke harritze- koa izango, 1484an gertatu bezala, kalteen ondorioz udalbatzak enkantean hainbat lur atera nahi izatea, gastuei aurre egiteko. Zeintzuk izan zitezkeen jakiterako orduan, aurreko urteetan saldutako- en zerrenda ikusiko zuen eta bertan topatu 1484ko batzuk ez zirela guztien adostasunarekin egin. Hala, udalbatzak ez zuen aukera galdu eta urte hartako salmenta indargabetzea erabaki zuen. Horretarako hainbat arrazoi jarri zituen: besteak beste, garai hartan udalbatza guztia bilduta ez zegoela edo balio zutena baino prezio txikiagoan saldu zirelaren argudioak erabili zituen³⁵.

Donostiarentzat, lurak berreskuratzea oso garrantzitsua zen. Sanpedrotarrek eremu horiek jabe- tzan bazituzten, udalbatzak ezer gutxi egin zezakeen; behin berreskuratuta, aldiz, askatasuna zuen. Honek hiri-ondasunak handitzeko aukera ematen zion, baita lur horien kudeaketa nahi zuen moduan antolatzeko abagunea ere. Honen bidez, etekin edo dirusarrerara handiagoak lortuko litzuke. Besteak beste, nahi zuenari errentan emango zizkion edo, bestela, Donostiaren alde egiten zuen per- tsonaren aldeko dohaintza egingo zuen³⁶.

Kofradiaren inguruko liskarrak, Donostiaren sutea eta hiribilduaren berregituraketa, San Pedroren garapen ekonomikoa zailtzen zuten neurriak mantentzea eta lursailen inguruko eztabaidak; egoera

29. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XXIV at.

30. GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto: *Gobernar la ciudad...*, aip. lan., 436-437 orr. eta AYERBE IRIBAR, María Rosa: «Ordenanzas de la cofradía de mareantes de San Pedro, en San Sebastián (1489)», *BEHSS*, 41. zk., 2007, 417-437 orr. GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto: «La comuni- dad...», aip. lan., 552-553. orr.

31. Hamalagarren ordenantzak igandetan eta jai egunetan hiribilduan edo Pasaiako portuan merkatalgaien lurreratze edo ontziratzea debekatuko du. AYERBE IRIBAR, María Rosa: «Ordenanzas de la cofradía...», aip. lan., 435. orr. Ald. IMAZ, José Manuel: *La industria pesquera en Guipúzcoa al final del siglo XVI (Documentos de la época)*, GFA, Donostia, 84-85 orr.

32. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, LXXXVII at.-LXXXVIII au. folk.

33. «... que en tiempos antes que la dicha cofradía se desatase syenpre davan los de San Sabastyán alguna limosna a los pobres pescadores del Pasaje (...) e que después acá, puesto que los del Pasaje contribuyen para la lumbre que se fase, de lo que sobra no dan nada a los pobres del Pasaje como solían antes...». Ibidem, XCVIII at. fol.

34. AGS. RGS. 1487-XI, 24 fol.

35. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, CCII au. eta hh.

36. Batzuen arabera, lursail batzuk beste pertsona bati saldu zitzaizkion. Ibidem, 5 au. fol. Bestalde, badugu bi dohaintzen berri: bata, 1492an Domingo Cotilloskoari egindakoa eta bestea, 1517an Migel Arriagakoari egindakoa. Ikus, hurrenez hurren, AHPZ. Híjar, P/1-147-2-41 eta ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 143 au. -144 au. folk.

berri honen aurrean ez da harritzekoa handik gutxira sanpedrotarrek beraien kexuak adieraztea; zer esanik ez itsas-garraioan oinarritutako hazkunde ekonomiko garaian gaudela kontutan hartuta. 1487tik aurrera ikusten ditugun talken ondorioz, tentsioak pixkanaka gora egin zuen, lehertu arte. Arazoak 1491n eta 1492an agertzen zaizkigu baina ezegonkortasuna 1495 urte inguruan sakondu zela dirudi. Orduan, Donostiarekin zituzten arazoetan sortutako gastuei aurre egiteko, sanpedrotarrek diru-banaketak edo errepartinenduak burutu zituzten, udalbatzari baimenik eskatu gabe³⁷.

1497an tirabirak ezin argiagoak dira. Otsailaren 20an, Donostiak Pedro Villaviciosakoa eta Anton Gayangoskoa atxilotu zituen, 1484an egin zen lursailen salmenta gutuna garaiz ez aurkezteagatik. Martxoaren 18an berriz, San Pedron, bertako hainbat biztanlek Domingo Guarnizokoa eta Migel Isasakoa donostiarrei kexuak helarazten zizkieten, pinaza batean arrantzatu berri zuten legatza atxikitzegatik³⁸.

Arazoa korapilatzen hasia zen. Apirilean Errege Katolikoek Alvaro de Porras korrejidoreari agindu eman zioten, arraina eta beste oinarritzko gaien hornidurarekin zerikusia zuten salaketen inguruan ikerketa egin zezan. Sanpedrotarrek Donostia salatzen zuten, baimenik gabe kargatu edo lurretatzen zuten edozein produktu atxikitzen zielako. Era berean, arrantzatzen zuten arraina zatitu eta lehortzea debekatzen zitzaizela adierazten zuten, eta garia eta aleak lurrez garraiatzea behartzen zituztela³⁹. 1489ko ordenantzen xedapenak, beraz, sanpedrotarren kexu nagusiekin harremana zuten.

Baina beste idatzi bat da egoeraren larritasunaren erakusgarri: 1497ko maiatzaren 25ean sanpedrotarrek emandako ahalordea, hain zuzen ere. Donostiaren aurka auzietan aritzeko helburuarekin egindako eskritura honetan, 101 (!) sanpedrotarrek parte hartu zuten eta kopuru hau gutxi balitz, falta zirenak beraiekin bat egingo zutelako agerian uzten zen⁴⁰.

Partaidetza altu honek hiribilduari komunitate oso bat aurrez-aurre zuela adierazten zion. Arazoa, beraz, ez zen nolana hiko. Baina ordurako Donostiak barne-testuinguru istilutsua gailenduta zuen eta jarrera irmoa aurkezteko egoeran zen. Ez zuen inolako zalantzarik, eta azken hamar urteetan sortutako tirabirei erantzun gogorrago bat emateko prest agertu zen. Hala, 1497ko ekainean, sanpedrotarrek 13 urtez beraien inguruetan zeuden lurren jabetza izan ondoren, udalbatzak hainbat ofizial eta auzotar bidali zituen horien gain zituen eskubideak berretsi edo berreskuratzeko asmoz, eta ez era baketsuan gainera.

5. TENTSIOEN GORENA: 1497-1503 ARTEKO AUZIA

Sanpedrotarrek aurkeztutako lekukotzek diotenean oinarrituz, badirudi 40-50 gizon armatu San Pedrorra iritsi, baratze eta lursailetan sartu eta bertan hazten ziren zuhaitzak eta barazkiak moztu eta txikitu zituztela:

«estando en posesión paçíficamente d'ellas, tenyéndolas plantadas de muchos árboles e frutales e de hortaliza para pro y mantenymyento de sus casas e auyendo las dichas partes contraryas más ha de dose anos vendidas a los dichos mys partes en todo y qualquier derecho e recurso en las dichas huertas e suelos d'ellas les pertenesçiese e pudiese pertenesçer de hecho, e con mano armada con grand escándalo e alboroto fueron a talar e talaron las dichas huertas e cortaron los árboles e frutales que en ellas estauan e arrancaron e destruyeron toda la hortalisa que en ellas estava (...) pusyeron grandes penas a los dueños d'ellas que no entrason [sic] en las dichas huertas tentando de los despojar de la posesión d'ellas...»⁴¹.

Denborarik galdu gabe, sanpedrotarrek ordezkariak izendatu zituzten udalbatza auzitara eramateko. Ordutik, eta 6 urte luzez, ehunka folio pilatu egin ziren Errege-Txantzilleritzan, bi aldeen arteko lekukotza eta alegatuekin.

37. AGS. RGS. 1499-VII, 182 fol. 1491 eta 1492ko istiluetarako, ikus AGS. RGS. 1494-V, 427 eta 441 folk. eta AGS. RGS. 1492-IX, 133 fol.

38. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, 1330-1, XXVII au.-XXVIII au. folk.

39. AGS. RGS. 1497-IV, 175 fol.

40. «...faziendo por nos e por todos los otros vezinos del dicho lugar avsentes (...) que con nosotros se querrán aderir...» (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, 1330-1, XXVI au.-XXVII au. folk.).

41. Ibidem, VIII au.-at. eta CLIII au.-at. folk. Prozesuaren laburpenerako, ikus Erreterriako Udal Artxiboa, C-5-I-1-16.

Funtsean, pasaitarrek lur horien jabetza 1484tik beraiena zela zioten. Ondorioz, Donostiako udalbatza ezin zen beraietan sartu, are gutxiago indarkeria jarrera batekin⁴². Baina argudio nagusiak lursailen inguruan baziren ere, San Pedrok beste hainbat gai salatu zituen auzian zehar. Horietako batzuk 1489ko ordenantzekin zerikusi zuzena zuten, hala nola, oinarriko produktuen hornidurari lotutakoak.

Hor ditugu, adibidez, gari eta aleei buruzkoak. Sanpedrotarrek itsasoz era askean ekartzea galarazten zitzaizela salatzen zuten. Halakorik egiteko udalbatzaren baimena behar zuten eta askatasunez egiten zutena lurrezko garraioa zen, emakumeek buruan bihiak eramanez⁴³. Komunitate pasaitarren ustetan, itsasoz ekartzea askoz merkeago eta erosoagoa zitzaien, eta hori eskatzen zuten⁴⁴.

Arrantzatutako arrainaren inguruan ere kexuak agertu zituzten. Sanpedrotarrek arrantzatutakoa harrapatu eta berehala badian lurreratzea debekatua izateaz gain, arrainaren lehortze eta ontzea galarazita zuten. Izan ere, 1489ko ordenantzek oso argi arautzen zuten arrantzatutakoa zuzenean hiribildura eraman behar zela. Gure protagonistek, aldiz, arrantzatutakoa San Pedron bertan lurreratu, idortu eta gero hiribildura eraman nahi zuten, honela hornidura erosoagoa eta merkeagoa zitzaielako. Lekuko batzuek, gainera, pasaitarren eskaera hau aurreko hamarkadetan betetzen zela zioten⁴⁵.

Okelaren hornidura zen sanpedrotarrak kezkatzen zituen beste gaietako bat. Garai hartan, Donostiako udalbatzak errentan ateratzen zuen; hiribilduan, aldiz, hornidura askea zen. Sanpedrotarrek ere, hala egin nahi zuten. Hornidura askea izanez gero, herrian hainbat harakin egongo lirateke, honek beraien arteko lehiakortasuna areagotuko luke eta, ondorioz, negoziok aurrera egiteko salneurri eta produktu lehiakorrek beharko lituzteke. San Pedroko haragi hornidura errentan ateratzeak berriz, ez zuen okelaren kalitatea bermatzen; aitzitik, errentatzaileak etekina bilatzen zuen heinean, prezio altuagoz gain berari merke zitaion produktua saltzen zuen, kalitate eskasekoa alegia. Garai hartan bizi zen egoera larria zen, sanpedrotarrek –edo hori zioten beraiek– bertan erostea baino, nahiago zuten Donibane edo Erreteriarra joan eta produktua hemen eskuratzea.

Horniduraren gaiarekin amaitzeko, sagardoari buruzko kezka azaltzen zituzten. Zehazki, hornidura askea eskatzen zuten eta ez, ordura arte bezala; hau da, hiribildu barruan hornitzea edota udalbatzak adierazitako hainbat etxetan⁴⁶.

Elikagai eta jakiez gain, beste salaketa batek sacramenteroen jardunean zuen oinarria. Agidanez, hainbat urtetatik ordura arte beraien eskumenak areagotu ziren, eta beraien jarduna gehiegikeriaz beteta zegoela adierazten zuten sanpedrotarrek. Ofizial horien inguruko hainbat berri ematen zituzten, guztiak eroskerien inguruan. Juan Gaiangoskoak adibidez, Marota eta Domenja ahizpengandik eta Marota izeneko beste emakume batengandik, Joakin izeneko sacramenteroak hainbat diru jaso zuela zioen.

Udalbatza ez zen, baina, sanpedrotarren jomugan zegoen erakunde bakarra. Oraingoan ere San Pedro kofradiaren inguruko salaketak egin ziren. Batetik, kofrade izatera behartzen zituztelako; bestetik, San Pedroko arrantzaleek erakundetik ez zutelako inolako laguntza edo abantailarik jasotzen.

Azkenik, erlijio munduko kexuak agertzen ziren, bereziki zerbitzuen eskasiarekin zerikusia zutenak. Batetik, San Pedro elizan ezin zela bataiorik egin. Bestetik, sakramentuak jasotzeko hamaika arazo zeudela. Hauen kudeaketa hiribilduko kabildoaren esku zegoenez, honek hartutako erabakien zain geratzen ziren. Apaiza noizean behin bakarrik joaten zen eta sanpedrotarren beharrak ez ziren eraginkortasunez betetzen. Zerbitzu falta honen ondorioz, hiribilduan egoera zailtzen zenean (izurriteak, gaixotasunak edota suteak medio) pertsona ugari sakramenturik jaso gabe hiltzen ziren; are gehiago, askotan, hiribildura bataiatzera eramaten zituzten umeak bidean hiltzen ziren, komunikabi-

42. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, X at. fol.

43. Honen inguruan oso salaketa bitxia egiten da. Zehazki, emakume askok garraioa haurdun zeudela egiten zutela eta bidean egindako esfortzuen ondorioz, umeak galtzen zituztela: «...que beniendo de la dicha villa de San Sebastián mugeres preñadas para el dicho lugar del Pasaje con trigo, han abortado e perdido las criaturas que trayan en los cuerpos en el camino...». ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 118 au. fol.

44. Ibidem, 34 au., 45 at. eta 156 au. fol.

45. Ibidem, 156 at. fol. Esteban Altxatekoak, 1450 urte inguruan donostiarrak arraina lehertzeko baimena ematen zuela aipatzen zuen. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, CXVI at. fol.

46. «que los de las otras aldeas de la villa durante la cosecha fassen sus prouisiones como bien les está, e a los vesynos del Pasaje defienden los de la dicha villa que no hagan prouisión saluo de dentro d'ella o de çiertas casas sennaladas de su juridición, por manera que a cabsa d'esta estrechura les cuestan los mantenimientos muy caros». ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, CLXXXVIII au. fol.

deen egoera kaskarra dela eta. Horregatik, bertara joan baino, hainbatek nahiago zuten beraien seme-alabak inguruko elizetan bataiatzea: Donibanen, Lezon, Errenterian edo Altzan⁴⁷. 1458ko hitzarmenean ezarritako baldintzak txiki geratzen ari ziren, nonbait.

Ordenantzetan xedatutako neurriekin batera, 1497an horren berriak ez ziren eskaerei ere lekua egin zitzairen. Azken finean, salaketa hauek guztiak populazioaren garapena bermatu eta beraien zerbitzu egokiak emateko nahia islatzen dute. Baina, bereziki, San Pedroko komunitateak eta bere biztanleriak eskuratutako garrantzia gelditzen da agerian.

Pentsa dezakegunez, Donostiak akusazioak errefusatzeko zituen. Hainbat argudio ematen zituen bere hiribildu ikuspegia gailendu zedin. Gehienak harresien barruan bizi ziren auzotarrek zituzten beharretan oinarritzen zituen. Bere ustetan, Pasaiaiko gune horri eskatzen zituenak ematea hiribilduaren kalterako izango litzateke, Donostian burutzen ziren jarduera garrantzitsuak bertara lekualdatzeko arriskua baitzegoen. Auziaren hasieran gainera, Donostiak oso argudio adierazgarria ematen zuen. San Pedroko biztanleen saiakera independentziaren ildotik aurkezten zuen eta horiek «*vesinos e moradores del varrio e arraual del Pasage*» zirela zioen, hau da, harresien ondoan zegoen populazio gune bat⁴⁸. Adierazpen hauekin arrainaren lehorte eta zatiketaren debekua arrazoitzen zuen, donostiarren esanetan udal ordenantzek errebaletan halakorik egitea debekatzen zutelako. Gainera, eta oinarrian hiribilduek mantentzen zutelaren ideia islatzen, jarduera horiek eremu harresituan egitea Donostiaren merkataritzaren handitzea ekarriko zuten, merkataritza-aberastasuna bermatuko bailukete⁴⁹.

Sagramenteroei dagokienez, beraien lana hori zela eta ondo betetzen zutelak zioten. Halako karriak hiribildua fundatu zenetik zeudela zioen eta, horrez gain, beraien jardunaren inguruko araudiak 100 urte baino gehiago zituela.

Bestalde, oso adierazgarria da auzian zehar donostiarrek kofradiekiko islatzen duten harremana. Izan ere, harrigarria gerta dakiguke bertako auzotar garrantzitsu batzuek erakunde horien aldeko esanak egitea, urte gutxi batzuk lehenago hiribilduko bizitza hankaz gora jartzen zutelak adierazi ondoren. Migel Otxoa Olazabalgoaren esanetan, adibidez, kofradiek eta beraien araudiek funtsezko lana betetzen zuten ogibide ezberdinak arautzeko orduan. Desagertuko balira, berriz, «*sería causa de se perder el dicho ofiçio de cada vno d'ellos e avn el moylle que la dicha vylla tyene*»⁵⁰.

Hainbat urtetan zehar auzitan ibili ondoren, epaia 1503 martxoaren 17an eman zen. Bertan hartu ziren neurrien artean, azpimarragarrienak honakoak ziren:

Donostiak, eragindako kalteak ordaindu beharko zituen eta sanpedrotarrei lursailengatik ordaindutako dirua itzuli behar zien. Lursailak udalbatzaren eskuetara pasako ziren eta sanpedrotarrek zentsoa ordaindu beharko zuten.

Haragiaren inguruan, San Pedroko Donostian jartzen ziren baldintzak gozatuko zituen. Ondorioz, bertako okelaren hornidura askea izango litzateke.

Sanpedrotarrek elikagaiak eta oinarritzako produktuak lurrez nahiz itsasoz ekartzeko eskumena izango zuten, baina beti Donostiatik, ez beste inondik. Halaber, gari, ale edo bihirik ezingo zuten itsasoz ekarri, lurrez baizik.

Sanpedrotarrei produktuen lurreratze eta itsasoratzea debekatzen zitzairen.

Donostiak sagramenteroak izan zitzaizkeen, baina hauek ezingo zuten inolako ikerketarik egin hiribilduko justiziaren baimenik gabe.

Inor ezin zen kofradian indarrez sartu, baina kide eginez gero, erakundeko arauak betetzera behartua zegoen⁵¹.

Hainbat esparrutan San Pedroko baldintza hobekien lortu bazituen ere, beste arlo batzuetan aurreko hamarkadetako egoerak bere horretan jarraitu zuen. Tartean, lurren jabetza. Honen inguruan datu

47. Ibidem, CXXXVIII au. fol.

48. Ibidem, 12 au., V au., X au. eta XII at. folk.

49. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1331-1, XV. galdera edota ibidem XII au.-XII au. folk.

50. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, CCXLIV au. fol.

51. Ibidem, 65 at. eta hh. folk. Pentsa dezakegunez, bi aldeek epaia apelatu egin zuten eta beranduago, 1553ean, tirabirak berriz indarrez azalduko zaizkigu. Auzi hauen jarraipenerako, ikus BANÚS Y AGUIRRE, José Luis: *El Archivo Quemado...*, aip. lan., 35-37 eta 56-57 orr.

oso esanguratsu bat dugu, 1510-1525 artean Juana Llastres/Gaztelukoak Migel Arriagakoaren aurka izan zuen prozesuan, udalbatzaren jabetza direla behin eta berriz esaten baita⁵².

6. AZKEN HITZA

Lerro hauetan komunitate batek bere etorkizuna eta izaera bermatzeko topatu zituen oztopoak agerian utzi dira. Are gehiago; badiaren gaineko eskumenen inguruan izan ziren hamaika tirabiretan, Donostiaren jurisdikzioaren barnean zegoen komunitate horrek egin zituen aldarrikapenak eta bere jarrera aditzera eman ditugu. Orain arte oso gutxi jorratua zegoen gai bat izan dugu hizpide, eta bere inguruan argi egiten lagundu dugulakoan gaude, hein batean behintzat.

XIV. mende amaieran hasitako bideak arrakasta lortu zuen hamarkada gutxiren buruan, hamaika lekutatik, bai gertutik, baita urrunagotik etorritako jendeari esker ere. Elizaren eraikuntzak bertan bizi direnaren gorenaldia islatzen du. Berrogei urte beranduago ematen den ahalordea, berriz, bertako biztanleriak komunitate gisa izan zuen gorakadaren adibide ezin hobea da. Ez da doakoa azken dokumentu honen emaiak 101 izatea.

Badiak izango duen garapen ekonomikoa edo Europako merkatal bidean eskuratuko duen garrantzia agerikoa da. Baina harrigarria bada ere, Errenteriako datuak kenduta, azpiegituren inguruan berri gutxi ditugu. Leku askotan Pasaia erreferentzia portutzat hartu bada ere, Erdi Aroan eta Aro Berriaren hasieran eraikuntzen arrastorik ia ez dugu izango; eta dauden inguruan, ezin esan Europako portu garrantzitsuenen maila berean zeudenik⁵³. Gabezia honek ordea, ez zuen badiako garapena eten. Horren proba, bertako gune ezberdinetako biztanleak Europan zehar barreiatuta ikustea da, Arroxelan edo Ingalaterran, kasu. Juan de la Canal, adibidez, Bartzelona ezagutzeaz gain Gaztela, Frantzia eta Ingalaterrako hainbat portutan egona zen⁵⁴. Agerikoa da XV. mende amaieran sanpedrotarrek garraiolari funtzioa betetzen zutela Europan zehar. Domingo Cotilloskoak, adibidez, Bordeletik Sluis-erako bidea egin zuen 1493a baino lehenago. Hau guztia hainbat hamarkada geroago areagotuko da, eta XVI. mendearen bigarren erdialdean pasaitarrak Amberes-en bizitzen ikusi ahal izango ditugu⁵⁵.

Auziaren epaiak jardueren kontrola ekarri bazuen ere, San Pedrok bere bide propioa egiteko aukera izan zuen. XVI. mende hasierako testuinguruaren baitan, gure komunitatea jarduerak garatzearekin batera, eraikin politikoa eraikitzeke pausoak emango ditu. Horregatik, komunitate xume bat izanda ere, bere bilakaerak aurrera egin zuela aitortu behar dugu: 1529an, adibidez, bertako elizan umeak bataiatzeko eskumena lortu zuen. Badago, baina, azpimarragarriagoa den datu bat. XV. mende amaieran batzar orokorrean bilduta zeuden sanpedrotarrek garapen instituzional motela islatzen zen; 1550 inguruan, berriz, berezko kargu politikoak azalduko dira. Menpekotasun nabaria izan bazuten ere, beraien garapenari bidea ireki ziotelaren adibide garbia.

52. ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2.

53. Azpiegiturei buruz, ikus GOIENETXE PATRON, Ramón, aip. lan.

54. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XCIX au. folk.

55. GOIENETXE PATRON, Ramón: aip. lan.; IRIXOA CORTÉS, Iago: *Pasaia...*, aip. lan.; UNSAIN AZPIROZ, José María: *Pasaia: Iraganaren oroigarria, etorkizunari begira. Memoria histórica y perspectivas de futuro*, Untzi Museoa, Donostia, 1999.